- *Campaña anual de trabajo temporero en el TH de Álava, con visitas a Asociaciones, Centros de Salud, Explotaciones agrarias y Cooperativas, para asesoramiento y control de las actividades de PRL.*

*La integración del enfoque de género en la PRL ha sido otra línea de actuación desarrollada, con especial hincapié en la concienciación y sensibilización de los agentes.*

*Se ha organizado en el marco del Foro de Igualdad de Emakunde una Jornada sobre la PRL con perspectiva de género, a la que han asistido 191 personas, que han*

191 pertsonak hartu dute parte, eta ekimenari buruz balorazio oso positiboa egin dute.

Emakumeen lan-arriskuen prebentzioaren egoerari buruzko informazioa eta datuak biltzen eta aztertzen jarraitu dugu, arazoak identifikatzeko eta ekintzak diseinatzeko aukera emango duten adierazleak eduki ahal izateko.

Enpresetako prebentzioaren kudeaketan generoa integratzeko jarraibide batzuk egiteko proiektuari ekin diogu.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

*valorado muy positivamente la iniciativa.*

*Se ha continuado con la recopilación y análisis de información y datos sobre la situación de la PRL de las mujeres, a fin de contar con indicadores que permitan identificar problemas y diseñar acciones.*

*Se ha comenzado con el proyecto de elaboración de unas pautas para la integración del género en la gestión preventiva de las empresas.*

*El grado del cumplimiento de los objetivos establecidos se considera satisfactorio.*

## 6.- PRESTAKUNTZA BEREZIA

Lantokietako lan-arriskuen prebentzioan nagusiki esku hartzen duten eragileen prestakuntza sustatu da:

- Prebentzio-ordezkarien prestakuntza kudeatu da. Alde horretatik 182.574 euro erabili dira araudiari buruzko 54 ikastaro eta gai teknikoei buruzko 42 ikastaro emateko.
- Prestakuntza orokor horrekin batera, arrisku psikosozialei buruzko 6 tailer egin dira. Horietan 164 prebentzio-ordezkarik hartu dute parte.
- Prebentzio-zerbitzuen osasun-arloko langileentzako 6 tailer teoriko-praktiko antolatu dira, Laneko Medikuntzako Euskal Sozietatearekin eta Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiarekin lankidetzan. 679 pertsonak hartu dute parte.
- Osalanen Lan Osasunerako Unitateak, Osakidetzaren Laneko Medikuntzako irakaskuntza-unitatearekiko akordioaren arabera, aurten ere prestakuntza arautu eta espezializatua eman dio espezialitate horretako R4 barruko mediku egoiliar bati.
- Osalanen eta UPV/EHUren artean sinatutako hitzarmenaren barruan, erakundeak irakaskuntza-lanetan parte hartzen du Lan Harremanen Eskolak ematen duen lan-arriskuen prebentzioari buruzko masterrean.

E-learning prestakuntza sustatzen jarraitu dugu, eta horren haritik erakundearen webgunearen bidez prestakuntzako edukiak eskuratzeko aukera handitu dugu.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

## *6.- FORMACIÓN ESPECÍFICA*

*Se ha fomentado la formación de los agentes y actores principalmente implicados en la PRL en los centros de trabajo:*

- *Se ha gestionado la formación de los Delegados y Delegadas de Prevención (DDPP), destinando 182.574 euros a la impartición de 54 cursos sobre normativa y 42 sobre cuestiones técnicas.*
- *A esta formación general se han añadido 6 talleres sobre riesgos psicosociales, a los que han asistido 164 DDPP.*
- *Se han organizado 6 Talleres teórico-prácticos para el personal sanitario de los Servicios de Prevención, en colaboración con la Sociedad Vasca de Medicina del Trabajo y la Academia de Ciencias Médicas de Bilbao, con 679 asistentes.*
- *La USL de Osalan, en virtud del acuerdo con la Unidad Docente del País Vasco Medicina de Trabajo de Osakidetza, ha impartido nuevamente formación reglada y especializada a un MIR R4 de dicha especialidad.*
- *En el marco del Convenio firmado entre Osalan y EHU/UPV, el Organismo participa en tareas docentes en el Master de PRL que imparte la Escuela de Relaciones Laborales.*

*Se ha continuado promoviendo la formación e-learning, potenciando el acceso a contenidos formativos a través de la web del Organismo.*

*Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*

## 7.- OSASUNAREN ZAINTZA ETA LLGG-EN PREBENTZIOA

Lanarekin zerikusia duten gaixotasunen 127 kasu aztertu dira. Kasuetako 50 ustez amiantoaren eraginpean egotearen ziozko patologiak izan dira.

Jatorria lanean izan dezaketen 8 legionella kasu ere aztertu ditugu.

## *7.- VIGILANCIA DE LA SALUD Y PREVENCIÓN DE EEPP*

*Se han estudiado 127 casos de enfermedades relacionadas con el trabajo, 50 de las cuales han sido patologías derivadas de una posible exposición al amianto*

*También se han analizado 8 casos de legionella de posible origen laboral.*

Laneko historia kliniko baten eredua ezartzean datzan proiektua garatzen jarraitu dugu, eredu horrek langileari bere langile-bizitzan (eta ondoren) lagundu diezaion, eta horretarako arau baten proposamena aztertu da.

*Se ha continuado con el desarrollo del proyecto consistente en la implantación de un Modelo de Historia clínico-laboral, que acompañe al trabajador a lo largo (y después) de su vida laboral, abordando la propuesta de norma reguladora.*

Osasun Kolektiboaren Zaintzarako Gidaliburua aurkeztu dugu, eta hori egiteko zuzentarau eta irizpideetan aholkua eman dugu.

*Se ha presentado la Guía de Vigilancia de la Salud Colectiva, asesorando en las directrices y criterios para su realización.*

Osasuna sustatzeko programen bitartez bizi-estilo osasuntsuak sustatzea izan da Osalanen lan-ildoetako bat. Bereziki arreta jarri dugu enpresetan droga-mendekotasunak prebenitzeko.

*El fomento de los estilos de vida saludables mediante programas de promoción de la salud ha sido otra línea de trabajo de Osalan, incidiendo especialmente sobre la prevención de las drogodependencias en las empresas.*

Lanarekin zerikusia duten kalteen zainketa epidemiologikoa egin dugu, eta laneko minbiziaren zainketa epidemiologikoko proiektua abian jarri dugu.

*Se ha realizado la vigilancia epidemiológica de los daños relacionados con el trabajo, iniciándose el proyecto de vigilancia epidemiológica del cáncer laboral.*

Zarataren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko protokoloaren berrikuspenerako ebidentziak biltzen hasi gara.

*Se ha iniciado la recopilación de evidencias para la revisión de protocolo de vigilancia de la salud de trabajadores expuestos a ruido.*

Langileak amiantoaren eraginpean egotearen ondoriozko arazoak artatu ditugu, eta horretarako hainbat motatako jarduerak egin ditugu:

- Amiantoaren eraginpean egotearen ondoriozko gaixotasunen kasuak ikertzea.
- Amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren langileen okupazio osteko osasunaren zaintza kudeatzea. Balizko kasuen zerrendan 57 pertsona sartu dira, eta 102 kasu izapidetu dira, horietatik 82 Osakidetzak kontrolatzen dituela.
- “Amiantoaren eraginpean egon ziren langileen biriketako minbizia zaintzeko gidaliburua. Dosi txikiko OTA erabiltzea”.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzordearen lantaldean nahiz AENORren lantaldean parte hartzea.

*Se ha atendido la problemática derivada de la posible exposición de las y los trabajadores al amianto, mediante actuaciones de distinta naturaleza:*

- *Investigación los casos de enfermedades derivadas de una posible exposición al amianto.*
- *Gestión de la vigilancia de la salud post-ocupacional (VSPO) de las y los trabajadores que hayan podido estar expuestos al amianto, incorporando 57 personas al listado de posibles expuestos, y tramitando 102 casos, 82 de los cuales se controlan por Osakidetza.*
- *Elaboración de la “Guía para la vigilancia sanitaria del cáncer de pulmón en trabajadores que estuvieron expuestos al amianto. Utilización del TAC de baja dosis”.*
- *Participación en el grupo de trabajo del amianto de la Comisión Nacional de Seguridad y Salud en el Trabajo, así como en el grupo de trabajo de AENOR.*

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jo da.

*Se considera altamente satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*

## 8.- LAP-AREN ARLOKO JARDUNBIDEEN KALITATEA

## *8.- CALIDAD DE LAS ACTUACIONES EN MATERIA DE PRL*

Enpresetako prebentzio-jardueren kalitatea hobetzeko lan egin dugu, bereziki ETEetan; horretarako, LAP kudeatzeko irizpideak, jarraibideak eta metodologiak egin eta hedatu ditugu.

Hala, Zubien eraikuntzan laneko arriskuak prebenitzeko gida teknikoa amaitu eta aurkeztu dugu, eta aurrera egin dugu Altueran lanak egiteko segurtasun gidarekin. Azken hori 2016an hedatzea aurreikusi da.

*Se ha trabajado para mejorar la calidad de las actividades de prevención de las empresas, especialmente Pymes, mediante la elaboración y difusión de criterios, pautas y metodologías de gestión de la PRL.*

*Así, se ha finalizado y presentado la Guía técnica para la PRL en la Construcción de Puentes, avanzándose también en la Guía de seguridad de trabajos en altura, cuya difusión está prevista en 2016.*

Silizearen eraginpean dauden langileei dagokienez jarduketa integralari ekin zaio; alde horretatik, osasunaren zaintzari eta esposizioaren prebentzioari heldu zaie.

*Se ha iniciado una actuación integral respecto a la exposición de los trabajadores a la sílice, abordando la vigilancia de la salud y la prevención de la exposición.*

Arrisku psikosozialen eremuan aurrerakadak oso garrantzitsuak izan dira:

*Los avances en el ámbito de los riesgos psicosociales han sido muy importantes:*

- Osasun sektoreko enpresa publiko eta pribatuei arrisku psikosozialen inguruko aholkua emateko kanpaina bat egin da. Kanpaina horretan 3 lurraldeetako 133 lantokitan egin dira bisitak.
- Osalanen Laneko Psikosoziologiaren Jardunaldien VI. Edizioa egin da. Harrera bikaina izan du eta guztira 390 pertsonak hartu dute parte.
- Osalanen webgunean psikosozialei buruzko espazio espezifikoa argitaratu da.
- Prebentzio-ordezkariekin 6 tailer antolatu dira psikosozialen arazoari heltzeko.
- Osalanen jarduketa teknikoetan arrisku psikosozialen prebentzioaren azterketa txertatu da, eta 78 enpresatan arrisku horien egoera hobeto ezagutzea lortu da.

Arrisku ergonomikoen tratamendua ere landu dugu adinekoen egoitzetako langileen arriskuen esposizioari buruzko proiektu batean (Ergozaintza). Proiektu hori CENEArekin lankidetzan egin dugu.

Halaber, EAEko arrisku kimikoaren egoeraren diagnostikoa sakonago aztertu dugu; zehazki, tindategien sektorea aztertu dugu.

Azkenik, sakonago aztertu ditugu oso ezagunak ez diren arriskuak, adibidez nanopartikulen eta eremu elektromagnetikoen esposizioaren ondoriozkoak, bai eta laneko denborekin eta txandakako lanarekin lotutakoak eta horiek langileen osasunean dituzten ondorioekin lotutakoak.

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jotzen da.

- *Se ha realizado una campaña para asesorar a las empresas públicas y privadas del sector sanitario en relación con los riesgos psicosociales, en la que se han visitado 133 centros de trabajo de los 3 Territorios.*
- *Se ha celebrado la VI edición de las Jornadas de Psicosociología Laboral de Osalan, con excelente acogida y un total de 390 asistentes.*
- *Se ha publicado un espacio específico sobre Riesgos Psicosociales en la web de Osalan.*
- *Se han organizado 6 talleres con DDPP para abordar la problemática de los riesgos psicosociales.*
- *Se ha integrado el análisis de la prevención de los riesgos psicosociales en las actuaciones técnicas de Osalan, obteniéndose un mejor conocimiento de la situación de dichos riesgos en 78 empresas.*

*También se han abordado el tratamiento de los riesgos ergonómicos en un proyecto sobre la exposición a dichos riesgos del personal de las residencias de personas mayores (Ergozaintza), desarrollado en colaboración con CENEA.*

*Así mismo, se ha profundizado en el diagnóstico de la situación del riesgo químico en la CAE, analizando en concreto el sector de las tintorerías.*

*Finalmente, se ha profundizado en los riesgos poco conocidos, como son los derivados a la exposición a nanopartículas y a campos electromagnéticos, así como en los asociados a los tiempos de trabajo y la turnicidad y sus consecuencias sobre la salud de la población trabajadora.*

*Se considera muy satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*

## 9.- EZAGUTZA SORTZEA

Guztira EAEn gertatutako 233 lan-istripu ikertu ditugu, 17tan hildakoak izan dira, 129tan zauritu larriak/oso larriak, 3 zauritu anitzak eta 84 arinak; istripuak sorrarazi dituzten arrazoiak identifikatu ditugu eta prebentzio-neurriak gomendatu ditugu.

212.860,82 euro erabili ditugu laneko segurtasun eta osasuneko 5 ikerketa-proiektu finantzatzeko. Halaber, hazkunde adimentsu eta jasangarri baterako industria-segurtasuneko Europako ikerkuntza koordinatzeko ERANET-SAFERA programaren barruan proiektu bat diruz lagundu dugu, 12.827 euroko aurrekontuarekin.

Lehentasun bat Lehen Sektorean ezagutza sortu eta transferitzea izan da. Horretarako, AZTIrekin lankidetzan aritu gara, sinatutako hitzarmena garatzeko. Emaitza gisa, zaintza teknologikoari eta prozesu osasuntsuei buruzko bi gidaliburu eta tresna bat landu ditugu, eta lankidetzan aritu gara arrantza sektorearentzako eta nekazaritza eta abeltzaintza sektorearentzako prestakuntza- eta hedapen-jardueretan.

Urtean prestakuntzarako eta hedapenerako 20 jardunaldi tekniko egin dira, gai teknikoei eta osasun arloko gaiei

## *9.- GENERACIÓN DE CONOCIMIENTO*

*Se han investigado un total de 233 accidentes de trabajo ocurridos en la CAE, 17 mortales, 129 graves/muy graves, 3 múltiples y 84 leves, identificando las causas que los han producido y recomendando medidas de prevención.*

*Se han destinado 212.860,82 euros para la financiación de 5 proyectos de investigación en materia de SSL. Así mismo, en el marco del programa europeo ERANET-SAFERA, de Investigación en Seguridad Industrial hacia un Crecimiento Inteligente y Sostenible se ha subvencionado 1 proyecto, con un presupuesto de 12.827 euros.*

*Una prioridad ha sido la generación y transferencia de conocimiento al Sector Primario, para lo cual se ha colaborado con AZTI, en desarrollo del Convenio suscrito. Como resultado, se han elaborado dos guías y una herramienta para vigilancia tecnológica y de procesos saludables, y se ha cooperado en acciones formativas y divulgativas destinadas a los sectores de la pesca y agroganadero.*

*Se han organizado a lo largo del año 20 Jornadas técnicas formativas-divulgativas, sobre cuestiones técnicas y*

buruz, arrisku zehatzei eta LAPren kudeaketako alderdiei buruz. Jardunaldi horietan guztira 2.540 pertsonak parte hartu dute, eta balantzea benetan positiboa izan da, balorazio-inkestek agerian jarri dutenez. Honako ekitaldi hauek egin dira:

- Jardunaldi teknikoa: Sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma egur-hautsaren esposiziopeko langileen artean' Protokoloko aurkezpena.
- Laneko minbiziari buruzko mahaingurua Bilbao-Praxis 2015 Cáncer topaketaren barruan.
- Zerbitzu Publikoetako osasun langileentzako III. Tailer teoriko-praktikoa: Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa.
- 2015-2020ko Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Estrategiaren aurkezpena.
- SINAVAL – EUROFISHING erakustaldia (Azti-Tecnaliaren eta Osalanen proiektuen aurkezpena).
- Zerbitzu Publikoetako osasun langileentzako jardunaldia: Gerrialdeko min kronikoa eta lana.
- Kultur eta jolas jardueretako lan arriskuen prebentzioa.
- Zerbitzu Publikoetako osasun langileentzako IV. tailer teoriko-praktikoa: egur-hautsaren eta irin-hautsaren esposiziopeko langileen Osasuna zaintzeko protokoloen aplikazio praktikoa.
- Guen konfinatuei buruzko liburuaren aurkezpena Lan Arriskuen Heziketa Praktikoaren Institutuarekin.
- Laneko arriskuen prebentzioa, makinei dagokienez. Subcontratación 2015 azoka.
- Zerbitzu Publikoetako osasun langileentzako V. tailer teoriko-praktiko: Zaintza kolektiboa.
- Osalanen Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren alorreko V. Udako ikastaroa. Gaia: Biosegurtasuna.
- EAEko 2014ko Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Txostenen aurkezpena.
- Laneko Epidemiologia. Osasun Kolektiboaren Zaintzarako Gidaliburuaren aurkezpena.
- Zubien Eraikuntzako Segurtasunari buruzko Gidaliburu Teknikoaren aurkezpena.
- Basogintza-sektoreko lan-arriskuen prebentzioa.
- Zerbitzu publikoetako osasun langileentzako tailer teoriko-praktikoa: Tratamendu antikoagulatzailea duen pazientea lanean.
- Itsaso eta Arrantza Sektoreko Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko Ikastaroa.
- Laneko arriskuen prebentzioa genero-ikuspegiarekin.

*sanitarias, riesgos concretos y aspectos de gestión de la PRL, a las cuales han acudido un total de 2.540 participantes, con un balance francamente positivo, según evidencian las encuestas de valoración. Los eventos celebrados son los siguientes:*

- *Jornada técnica: Presentación del Protocolo de Vigilancia de la Salud Específica: Adenocarcinoma de fosas nasales y senos paranasales en trabajadores expuestos a polvo de madera.*
- *Mesa redonda sobre cáncer laboral dentro del Encuentro Bilbao-Praxis 2015 Cáncer.*
- *III Taller teórico-práctico para personal sanitario de los SSPP: Gestión de PRL.*
- *Presentación de la Estrategia Vasca de Seguridad y Salud en el Trabajo 2015-2020.*
- *Certamen SINAVAL – EUROFISHING (Presentación de los proyectos de Azti-Tecnalia y Osalan).*
- *Jornada para personal sanitario de los SSPP: Dolor crónico lumbar y trabajo.*
- *La Prevención de Riesgos Laborales en actividades culturales y recreativas.*
- *IV Taller teórico-práctico para personal sanitario de los SSPP: Aplicación práctica de los protocolos de Vigilancia de la Salud de trabajadores expuestos a polvo de madera y polvo de harinas.*
- *Presentación libro sobre Espacios Confinados con IFPRL.*
- *La Prevención de Riesgos Laborales en relación a maquinaria. Feria Subcontratación 2015.*
- *V Taller teórico-práctico para personal sanitario de los SSPP: Vigilancia colectiva.*
- *V Curso de Verano de Osalan de Seguridad y Salud en el Trabajo. Tema: Bioseguridad.*
- *Presentación de los Informes de Siniestralidad Laboral y Enfermedad Profesional de la CAE del año 2014.*
- *Epidemiología Laboral. Presentación de la Guía de Vigilancia de la Salud Colectiva.*
- *Presentación de la Guía Técnica de Seguridad en la Construcción de Puentes.*
- *La Prevención de los Riesgos Laborales en el Sector Forestal.*
- *Taller teórico-práctico para personal sanitario de los SSPP: Paciente anticoagulado en el trabajo.*
- *I Curso de Seguridad y Salud Laborales en el Sector Marítimo-Pesquero.*
- *Prevención de riesgos laborales con perspectiva de género.*

- Osalanen Laneko Psikosoziologiaren VI. Jardunaldiak.

Ezarritako helburuen betetze-maila oso egokitzat jo da.

- *VI Jornadas de Osalan sobre Psicosociología Laboral.*

*Se considera altamente satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*

## 10.- INFORMAZIO ETA SISTEMAK

EAEn laneko segurtasun eta osasunaren egoerari buruzko adierazleak taxutzen lanean aritu gara. Adierazle horiek lagungarriak izango dira langileen osasun-egoera eta lan-baldintzak ezagutzeko, bai eta 2015-2020 epealdiko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren euskal estrategiaren bilakaeraren jarraipena egiteko. Horretarako, hainbat informazio-iturri aztertu da.

Lanbide Gaixotasunaren Susmoari buruzko 426 jakinarazpen izapidetu dira, EAEko osasun zerbitzuek eta Zerbitzu Publikoek egindako 585etatik.

EAEko Lan Istripuen eta Lanbide Gaixotasunen Txostenak egin dira eta haien jarraipena egin da, hainbat aldagairen azterketa txertatuta: genero-ikuspegia, biztanleria langilearen zahartzea eta azpikontratazioa. Txosten horien osagarria basogintza sektoreko istripu-tasari buruzko azterlan espezifikoa izan da.

Zerbitzu Publikoetako Gutxieneko Datu-multzoa ezartzeko proiektua garatzen jarraitu dugu, 3 erakunderekin egindako pilotajearen bitartez. Aldi berean lanean ari gara osasun arloaren antolamenduaren arauari buruz, bai ta Zerbitzu Publikoetako osasun arloko datuen fitxategia ezartzeko.

Gizarte Segurantzaren Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan jarraitu dugu Osalanek Lanbide Gaixotasunei buruzko informazioa hobeto eskuratu ahal izan dezan, CEPROSS sistemaren bitartez.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

## *10.- INFORMACIÓN Y SISTEMAS*

*Se ha trabajado en la construcción de los indicadores sobre la situación de la SSL en la CAE, que servirán para conocer el estado de salud y las condiciones de trabajo del colectivo trabajador, así como para el seguimiento del avance de la Estrategia Vasca de SST 2015-2020. Para ello, se han estudiado posibles fuentes de información.*

*Se han tramitado 426 Comunicaciones de Sospecha de Enfermedad Profesional del total de 585 realizadas por los servicios sanitarios y de los SSPP de la CAPV.*

*Se han realizado y presentado los informes anuales sobre Siniestralidad y Enfermedad Profesional en la CAE, incorporando el análisis de variables relativas a perspectiva de género, envejecimiento de la población trabajadora y subcontratación. Dichos informes se han complementado con un estudio específico sobre la siniestralidad en el sector forestal.*

*El proyecto para la implantación del Conjunto Mínimo de Datos de los SSPP ha continuado desarrollándose, mediante un pilotaje con 3 Entidades. A la vez se está trabajando sobre la norma reguladora de la ordenación sanitaria, y en la implantación del fichero con datos sanitarios de los SSPP.*

*Se ha continuado en contacto con la Dirección Gral. de Ordenación de la Seguridad Social (DGOSS) para mejorar el acceso de Osalan a la información sobre Enfermedades Profesionales (EEPP) a través del sistema CEPROSS.*

*Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*

## 11.- PERTSONEN GARAPEN PERTSONAL ETA PROFESIONALA

Osalanen zerbitzu eta prozesuak hobetzeko prozesuarekin aurrera jarraitu dugu; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa publiko aurreratuko “Aurrerabide” eredua garatu eta ezarri da.

Zehazki, hauek landu dira:

- Agirien kudeaketa eta artxibo-sistema.
- Kanpoko kontsultak artatzeko prozesua.
- Zerbitzuen katalogoa eta prozesuen mapa.
- Jarduera monitorizatzeko beharrezkoak diren adierazleak.
- Barne-komunikazioa.

Aurrekontuaren jarraipen eta kontrola hiru hilean behin egin da.

## *11.- DESARROLLO PERSONAL Y PROFESIONAL DE LAS PERSONAS*

*Se ha continuado con el proceso de mejora de los servicios y procesos de Osalan, mediante el desarrollo e implantación del modelo de gestión avanzada del Gobierno vasco “Aurrerabide”*

*En concreto, se han abordado:*

- *La gestión documental y el sistema de archivo.*
- *El proceso de atención de consultas externas.*
- *El catálogo de servicios y el mapa de procesos.*
- *Los indicadores necesarios para monitorizar la actividad.*
- *La comunicación interna.*

*El seguimiento y control del Presupuesto se ha llevado a cabo trimestralmente.*

Osalanen Higiene Laborategiak 2015eko martxoan amianto-zuntzen kontaketarako egiaztapena jaso zuen, eta Erakundeari berari nahiz kanpoaldeari zerbitzua eman die.

Osalanen langileak laneko arriskuen prebentzioaren arlo batzuetan eta besteetan prestakuntza eta espezializazioa ematen jarraitu dugu.

Lan Ministerioak eta Gizarte Segurantzak, Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalak, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta beste erakunde batzuek informazioa elkartrukatzeko eta proiektuak garatzeko sustatutako erakunde arteko batzordeetan eta lantaldeetan parte hartu dugu:

- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Osoko Bilkura
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Eraikuntzako Lantaldea
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Nekazaritza Sektoreko Lantaldea
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren itsaso eta arrantza sektoreko Lantaldea
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Amiantoari buruzko Lantaldea
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Muga-balioen Lantaldea
- Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren lan istripuen azterketarako taldea
- GT/LEP – Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutu Nazionalaren muga-balioen taldea
- Aenorren AEN/CTN 15
- Aenorren AEN/CTN 81 Prebentzioa eta norbera eta taldea babesteko baliabideak lanean
- Aenorren AEN/CTN 81/SC 3-GT B12
- Aenorren AEN/CTN 81/SC 4 – Agente kimikoak
- Aenorren AEN/CTN 81/SC 3-GT A2
- AEN/CTN 171 Barrualdeen kalitatea Aenorren SC 03-GT 07 Amiantoa
- BATZORDE MISTOA Enplegu eta Gizarte-Segurantza Ministerioa – Autonomia Erkidegoak
- Enplegu eta Gizarte-Segurantza Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoen Batzorde Tekniko Mistoaren Amiantoari buruzko Lantaldea
- Laneko Osasunari buruzko txostena –Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordearen Lantaldea
- Zentro arteko Segurtasun eta Osasun Batzordea
- Lanbide Gaixotasunen Susmoaren Komunikaziorako Batzordea
- Gipuzkoan eta Bizkaian Azpiegitura Handien Herri Lanean laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena egiteko batzordeak

*El Laboratorio de Higiene de Osalan, que recibió en marzo de 2015 la acreditación para el contaje de fibras de amianto, ha prestado servicio al propio Organismo y al exterior.*

*Se ha continuado con la formación y especialización del personal de Osalan en los distintos ámbitos de la PRL.*

*Se ha participado en las siguientes comisiones interinstitucionales y grupos de trabajo promovidos por el Ministerio de Empleo y SS, el INSHT, el Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y otras Instituciones para el intercambio de información y el desarrollo de proyectos:*

- *Pleno de la Comisión Nacional de SST*
- *GT de Construcción de la CNSST*
- *Grupo de Trabajo Sector Agrario de la CNSST*
- *GT sector marítimo pesquero de la CNSST*
- *GT de Amianto de la CNSST*
- *GT de Valores Límite de la CNSST*
- *Grupo Estudio de la Siniestralidad Laboral del INSHT*
- *GT/LEP – Grupo de Valores Límite del INSHT*
- *AEN/CTN 15 de Aenor*
- *AEN/CTN 81 Prevención y medios de protección personal y colectiva en el trabajo de Aenor*
- *AEN/CTN 81/SC 3-GT B12 de Aenor*
- *AEN/CTN 81/SC 4 – Agentes químicos de Aenor*
- *AEN/CTN 81/SC 3-GT A2 de Aenor*
- *AEN/CTN 171 Calidad de interiores SC 03-GT 07 Amianto de Aenor*
- *COMITE MIXTO MEYSS – CCAA*
- *GT de Amianto Comité Técnico Mixto MEYSS-CCAA*
- *Ponencia Salud Laboral-GT de la CSP del CI del SNS*
- *Comité de Seguridad y Salud Intercentros*
- *Comisión Comunicación Sospecha EEPP*
- *Comisiones para seguimiento de la PRL en Obra Pública de Grandes Infraestructuras de Gipuzkoa y Bizkaia*

- AEN/CTN 180 Laneko aldi baterako lanen ekipamendua
- Aenorren AEN/CTN 180/N 032/GT02 Enkofratuak
- Industria Segurtasunerako Euskal Kontseilua
- BASEQUIM
- Saf€ra
- Amiantoari buruzko GSINen hitzarmenaren Lantaldea
- Bizkaiko eta Gipuzkoako GSINren Ezintasunen Baloraziorako Taldea
- Bideko lan-istripuen prebentziorako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren Lantaldea.

Ezarritako helburuen betetze-maila egokitzat jo da.

- *AEN/CTN 180 Equipamiento para trabajos temporales en obra*
- *AEN/CTN 180/N 032/GT02 Encofrados de Aenor*
- *Consejo Vasco de Seguridad Industrial*
- *BASEQUIM*
- *Saf€ra*
- *GT Convenio INSS Amianto*
- *EVI INSS Bizkaia y Gipuzkoa*
- *GT de la CNSST para la prevención de los accidentes de trabajo viales.*

*Se considera satisfactorio el grado del cumplimiento de los objetivos establecidos.*